


baña goiz oeratu biaf da; udaran, ordea, bazkal-ostean lo egin erazi biaf zayo.

ZINKUNEGITAR JOSEBA.
(Osalaria)

Aya.



ITXASKUNTZA-GAYAK

Lekeitio'ko arantzalien ekandu onak

Deun-Ander-egunian, Azilla'ko 30gn. Antigua'ko Andera Miren'en ondijan (altarian) ixontxiño bakotzeko arntzaliak jaupa edo *meza* eder bana esan-erazten dabe. Bakotxa ere jaupara, *tostafteko* gustijak erduten dira. Egunian berta (al ba-da) ixontxiño, sare ta abaf, euren jaupea esan daun abadiak onesten (bedeinkatuten) dauz, arantzaliak bafuban eta auzpaz dagozala. Eraxola *kalauten* daben gustijan, emakume bat ibiltan da kalerik-kake *Arima... pijeletsako!* abestubaz, emoten dautsoena batzen.

Deun-Jon Ugutzari-egunian ibildeuna edo prozesinua egi ten dabe nasaburura, Deun-irudija lepuan daroela.

Deun-Kepa-egunian, bariz, geyenak autoikintza ta jaunaf tza (konfesiño ta komunifua) egiten dabe.

Amafetan, jai andija, deunatzazko itxeikixunagaz (Santo-ganeko sermoyagaz). Afatsaldian, agufiza edo efosarijo-ostian, ibildeuna kairafio, Deunaren irudijaga efi gustijak gofik bera leku-afurik. Ori amafuta, Deun-Kepa'ren aurian antziñeko dantzea, *kava zañ baten gañian. Kava-erfenkia* ereisten yako. Dantza ori belauñ-giltzetan ugafik gitxijen daukon batek egin darua, *karia* lau gixonen lepuan dala. Atunetan erbestera urten baño len, bafdin onesten (*bedeinkatzen*) dabez ixontxiño ta txalupeak. Itxasora urtetian eta itxasuan baruban, otoi batzuk egiteko ekandu ona bai-dabe. Jaupa-nausira, agufiza-egifera, ibildeunetara ta edozein eleizkixu-netara juatan, arantzaliak onenak dira emen, batez-be afantzale zarak. Aunen zifeskintzea (pedia) sakona ta sendua da. Lekeitijar arantzaliak: urfe-gofi zafa baño mañago eikezubez ekandu deun zar ofek eta dozubezan beste batzuk, *zuben* seme ta ondorengoentzat onuratsubak ixango dira-ta.

MANEL-ZARA.

ÉRTI-GAYAK

Euzkerea ikastetxietan

Ikastetxe ta irakasliak
Euzkerazkuak Euzkadi'n
Biañak doguz euzko-sendija
Argitzeko gogo ta adin
Euzko-abesti, dantza ta kirol
Danakaz zaletu dedin

Txindijaz baña... uri gabiltz-ta
Gauf ezin dogu au egin.

* * *

Baña Bilbao'n Gaztedija'ko
Gure "Euzkeltzale-Bazkuna'k"
Euzkerearen aldez edozer
Pozik egin nai daukunak
Ikastetxe ta irakaslakaz
Gauf daukoguzan utsunak
On-bidetzeko arñu dauz orain
Asmorik abeikoyenak

* * *

Bat ein euzkotar guraso danak
Geure sendija zenbatu
Zeinbat ikasle doguzan ziguf
Ixen-abixenak afuru
Eta gustijok aburu batez
Ikastetxietan eskatu
Onci euzkeraz irakastia...
Ta ¿zer... ba-daye... ukatu?...

* * *

¿Eztozula nai gure umiai
Irakastia euzkera?
Agu... bai-guaz irakatsiko
Dautsien Etxe batera.
Itz geyau-barik egifnezkeru
Umiak andik atera,
Bigufu leikez irakatsiok
Euzkeraz irakastera

* * *

Maiñetasunak dau batasuna
Batasunak dau indara
Inozko geyen daukogu bariz
Indar orixen biañ
Batu giazan, ba, guraso danok
Euzkotar onak ba-gara
Gure sendijak ikasi dayan
Geuk gura dogun earra.

E' TAR KEPA.

LO GOZOA

Lo dago aurtxua bere seaskan
izara baño ederago,
amatxok abestu diyoaloko
¡lo, maitia, lo, lo!
Lo dago aurtxua, bañan egiten du
ifibate gustiz gozo;
Gixaxotxua donokiko gotzonakin,
noski, amesetan dago.
Lo dago aurtxua ta bere ondoan
ama dago eserita,
samufutasun txit aundiarekin
berari begira-begira,
sentzun guziyak eta biyotza
auragan ditu ipiñita;
ama seaska-ondoan semeari begira,
hufi guziyakin aitzu da.
Lo dago aurtxua, ¡ai, lo gozoa!
gotzontxuakin amesetan,

ama mañiak zintzo gorderik
inork esnatu ez dezan.
¡Ai, lo gozoa! Arafagana zatoz
amaren abesti biguñakin,
ta aurfandik zoaz esnatzen danean
amaren laztan samufakin.

TENE.

ETXELARÉ'KO USATEGIYETAK

Euzkotar ala euzkeldun bat nekez aurkituko da usategi oken aditzea ez duenik.

Baño usategi oriyetan nolako eizkera eder zoragariya daginek, ez dakiten aunitz bada Euzkadi'n eta "Euzko-Deya" r en irakurrien artean ere bai noski ta noaye bizpauru irakurkietan-edo orko eikeraz zerbaitxo eraferat.

Lenik Etxelare, Itxelare ala erdalduen Etxalar, Napa' ko iri kozkoara, Irun-Elizondo'ko bultzi beriaren sayetsian Euzkadi'n bakatik den uso-eizkera berebizikoa zere begiz dagona duzu, irakurle.

ikusi nai ba-duzu Etxelare ortan, bai-zoazke goyan aipatutako bultziyan Lesaka-Etxelare geldokiraño ta emendik ordu batez-edo ibilliko dituzu efitar dauden 5 anei neufkiñak (*metroak*).

Oinkari txar-samara ba-zara ta bideak izitzen ba-zaitu, goiz eta aratseko bultzirat bai-dituzu zalburdiak Etxelare'tik eta nekez-erdiakin efitratuko zara.

Atsegin miki bat eriyen, sagardo urupa egiñez edo ta ostalari begikoari derayozu: "usategiyyetarar nator eta nerabertxo bat edo nai nuke bideko" ta yafai zanpa-zanpa mutikori ta ordu baten buruan usategiyan zara izerdi-pizka aterita.

Mendi-zalea ba-zara ez da ikara eragiñazteko aldapa gaitza; baño zure onak aspaldi agur egin ba-ziyoten mendiyeri, orduan bi aldiz zere buruan azkaka lotuta, agitz-agitz leftu gabe goyan zaude.

Txixxiyak eta gantzak papua ba-dagizute malda gorakoan, aftu zalburdia ta lenik Basatearan efeka-goiti ta Yaufmendi lasa zeafkatuz gero, boitz-sei ordu-laurden goiti beiti Yaimendi ala Yaufmendi-gañen zara ta unen lepakan of-txen dituzu billatzen dituzun usategiyyak, ala Etxelare'tafak derayoten usategiyyetak.

Tokiya dezaguen onutxua nai ba-duzu, lepo ofetarar zere burua eraman aintziñean, saftu zaite usotxolan eta antxen zere toxa aterita pipaldi bat egizu edo goxarixu ala askarixtoa, nayago ba-duzu, orotik etxolan bai-daukazu-ta.

Begikada bat egiyozu etxol-atetik ekafi duzun bideari, dikusketzu basetxe txukun pollitak esker-eskuñerat Gorosuf-eta ta Lakain auzokoak.

Be-beko zolan datza eriya ibaf pollit baten erdiyan ibai kozko' baten eta 10-12 lasatxoren musu gofdiñak artzen dituela.

Ego-aldetik eri-zai bezala daude Azku, Barda ta Azkoli mendiyak, au bere jauregi ponpos galantakin eta uruntxeago ara Mendaur eta sarkaldetik Aya'ko ariyak.

So-aldiya dagizuneko, zure izefida txukaturik dagoke ta ba-zoazke lepakako aize me zofotzetarar.

Lau urats egin dituzuneko soro zelai batean zaude ta beilaxen dikusetzu boitz sare-toki zuaitz lefoak derakusketzen bezala ta sare baktotzak geriztokian an dauka bere sareyaya.

Ikustaldi arin ori egin eta zoaz soroa goiti meaka egirat eta alta begiyyak eta eda orotarar.

¡Ikuskafi zoragariyyagorik!

Ipa'aldetik Labiaga ta Larun mendiyak, eguzki-sof-kaldetik Atxuri, Mondafain eta Osondo ta oken artian urun agitz urun edatzen den zelaya ta itxasoa.

Zere ondoan dikuskezu mugafi Jafia agudo dadikezu France'n zandela jez olakorik egundano! Euzkadi-biotza da-ta. Ofa Sara, ara Senpera, Aña, Bayona, Miaritz...

Urtzi onaren aintziñean biotzak eskafak dagiotz unelako bastef alai geldukofa gere Abefitzat eman digulakotz; eta ementxen uzten zaituztet, irakurliak, ufengorarie.

USAZALE.

Etxelare.

GOKAXOEN ILEA

I

¿Nun zare len gu orain lez
bixi ziñienak lufian?
gatoz ifantzen auxe jakin-nayan.

—Orain zuben antzian
¡of nok ifandu leikian!...

Emen gagoz sulexa sakonian,
geure orbanen garbitokijan,
zubei deika gugaz, afen, erukiñu zaitian;
baña danok goitu ziñian,
gu lexatik ¡oi! urten-eziñian!

II

Aizkide ta senidiok,
¿zelan gugaz aitzu zare
jakiñik zuben laguntasun-bage
biaf dogula efe?
¡ai ene!!!—¡ai ene!!!

Miserere mini mei, eruki zadiz geuri
Otoi bat, afen, bijotze Jauna'ri,
miserere mini mei negargafi ¡ai! emen
ezkaizubez itxi Jauna'fen,
ia, ba, zelan gomutatzen zaren.

K.

(Planu niz lez abestu edo kantetan da.)

EUZKEL-ABESTIJAK

IOÑAZEZI

Gaufkuatzaz ¿zer esango dogu? Euzko-abesti poliik ba-dago ona auxe. Naba'ko Aranaz urijan Donostia'f Joseba Andoni abeak aftu, eban. ¿Nogandik? Entzun dogunez *karabiñero* baten semiagandik! Ori dok ori. Eibestafak, afoztak olako euzko-abesti ederik abestu ta geure baserijetan euzko-baseri'afak Ebro'z andiko abesti zantar itxusijak abestuten dabez. Olan gabiltz geu, buruz bera ta ankar gora.

Abando'ko Filarmónica'n egin ziran euzko-eresefiti-itxeikixunetan egon ziranak gomutetan edo-dira abesti onegaz. Neskatotaldetxu batek abestu ta berabestu eban.

Orduko abestitza etzan, baña, emen argifalduten dana. Lengua, zafa, geure abestirik geyenak lez erderakaduz lotu